

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIK

Nafarroako Ospitale Gunearen elektroenzefalografiari buruzko lan baten erakusketak Espainiako Neurofisiologia Klinika Elkartearen aitortpena jaso du

Elkarteak emandako saririk garrantzitsuena da, alderdi hauek aitortzen dituen: aurkeztutako lanaren kalitate zientifikoa, azalpenetan argitasuna, gaiari buruzko ezagutza eta hizlariak emandako azalpenak

Asteartea, 2018.eko urriak 30

Nafarroako Ospitalearen Neurofisiologia Klinikoko Zerbitzuak Ahozko Komunikazio Onenari Saria jaso du “Elektroenzefalografiaren” kategorian, duela gutxi Santiago de Compostelan egin den “LVI. Espainiako Neurofisiologia Klinika Elkartearen Urteko Bileran”.

Elkarte zientifikoak adituen batzordearen eskutik urteko bileran banatzen duen

saririk garrantzitsuena da. Horretarako, adituen batzordeak aldeztu aurretik aurkeztu diren komunikazio guztien artetik lanik onenak aukeratzen ditu espezialitate mediko hori barne hartzen duten bost eremu nagusietan: Elektroenzefalografia, Elektromiografia, Potentzial ebokatuak, Monitorizazio Intraoperatorioa eta Loaren Azterketak.

Oraingoan, Inmaculada Rodríguez-Ulecia, Rocío Pabón-Meneses, Luis Gila, Olatz Olaziregui eta Iñaki García de Gurtubay medikuek eginiko obra izan da saritua, izenburu honen pean: “Status epileptico superrefractario en paciente con encefalopatía posterior reversible post endarterectomía”. Rodríguez-Ulecia doktoreak antolatu du erakusketa. Patologia arraro eta potentzialki arriskutsua zeukan gaixo bati egindako jarraipena zuen gaitzat, eta gaixoak, haren buruko jarduera elektrikoa monitorizatzearen bidez, bilakaera on bat izan zuen.

Adituen batzordeak alderdi hauek baloratu ditu: aurkeztutako lanaren kalitatea, azalpenetan argitasuna, gaiari buruzko ezagutza, eta galderen txandak emandako azalpenak. Halaber, gaiari buruzko ezagutzari egindako ekarpen berritzailea eta haren inplikazio praktikoa aitortu ditu.

Egileek Nafarroako Ospitaleko Neurofisiologia Klinikoko Zerbitzuan lan egiten dute eta honekin lau dira jada azken bost urteetan jasotako



Rodríguez-Ulecia doktorea erakusketan zehar.

sariak.

Neurofisiologia klinikoa

Neurofisiologia klinikoa espezialitate mediko bat da, eta espezializazio handiko teknika instrumentalen bidez nerbio-sistema zentralaren eta periferikoaren azterketa funtzionala egiten du, baita zentzumen-organoen eta muskulu-sistemaren nerbio-osagaiarena ere, diagnostikoak eta pronostikoak egiteko eta xede terapeutikoetara ere. Teknologiaren alorrean gero eta lorpen handiagoak daude, eta, ondorioz, aurrerapen garrantzitsuak lortzen ari dira aipaturiko sistemen fenomeno bioelektrikoen zuzeneko eta zeharkako erregistro, bihurketa, prozesaketa eta analisiari dagokienez. Hori dela eta, eremu horietan lan egiten duten profesional-taldeek etengabeko eguneratze-prozesua jarraitu behar dute.